

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 50 min** dituzu azterketa egiteko.

| | PROBEN EZAUGARRIAK | AURREIKUSITAKO DENBORA | PUNTUAZIOA (GEHIENEZ) | PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ) |
|-----------------|---|---------------------------|--------------------------|---------------------------|
| IRAKURMEN PROBA | <ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez. | 50 min | 20 | 10 |
| IDAZMEN PROBA | <ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. | 60 min | 30 | 15 |

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ESPAZIORIK EZ EMAKUMEENTZAT

Cañaverall lurmuturretik (AEB), 1962ko otsailaren 20an, *Mercury-Atlas-6* suziria jaurti zuten espaziora eta kapsularen barruan John Glenn astronauta zihoan. Lurraren inguruan hiru orbita egin zituen eta, hala, balentria lortu zuen lehen estatubatuarra izan zen; Yuri Gagarin eta Gherman Titov sobietarrek aurreko urtean lortu zuten.

Hidden Figures filmak kontatu berri digu hainbat emakume beltzen kalkuluak funtsezkoak izan zirela NASAREN misioen arrakastan. Baina ez ziren izan espazioko lehia ezkutuan ibili ziren emakume bakarrak. NASA 1959an hasi zen zazpi gizonezko trebatzen astronauta izateko: *Mercury Seven* deitu zieten horiei. Baina programako ikertzaile William Randolph Lovelace II.ak pentsatu zuen emakumeak egokiagoak izan ahal izango zirela espaziora joateko. Bere ustez, emakumeak txikiagoak eta arinagoak zirenez, erregai gutxiago beharko zen haiek espaziora bidaltzeko. Gainera, espazioan egonaldi luzeak ere aurreikusten zituzten, eta emakumeek jaki gutxiago beharko zuten gizonek baino.

Hala, *Lehen Emakumezko Astronauta Trebatuak* (FLAT) programa jarri zen abian, estraofizialki. Hegaldietan 1.000 orduetik gorako esperientzia zuten hogeit hamar emakumezko piloturi egin zizkieten zazpi gizonezkoegi egindako proba berak eta hamahiruk gainditu zituzten. Gerora *Mercury 13* deitu zitzaizen, baina ez ziren inoiz NASAko *Mercury* programaren parte izan.

1962ko uztailean, emakume horiek *Mercury* programan ofizialki sartzeko eskaera egin zuten. Erantzuna George Low NASAko ordezkariak eta John Glenn eta Scott Carpenter astronautek eman zuten agerraldi batean: emakumeek ez zituzten astronauta izateko derrigorrezko baldintzak betetzen. Ingeniaritza titulua eta jet militarretako pilotu gradua behar zuten, baina garai hartan emakumeek debekatuta zeukaten Aire Armadako eskoletan ikastea, eta hegaldi zibiletako esperientziak ez ziren ezertarako balio izan.

John Glennek berak esan zuen: «Eremu honetan emakumerik ez izatea gure ordena sozialaren ispilu da». Eta ingeniari titulurik izan gabe ere, bera programan onartu zutela aitortu zuen. Hurrengo urtean Valentina Tereshkova sobietarra izan zen espaziora joan zen lehen emakumea.

IRAZUSTABARRENA, N.

ARGIA. 2017ko martxoaren 5a. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Zer lortu zuten 1962an *Mercury-Atlas-6* suziriarekin?**
 - a) Ordura arte egin ez zen balentria espaziala egitea.
 - b) John Glennek aurreko urtean sobietarrek egindakoa egitea.
 - c) Astronauta sobietarrek Lurraren inguruan hiru orbita egitea.
2. **Zer kontatu digu *Hidden Figures* filmak?**
 - a) Espazioko lehia ibili ziren emakume zurien istorioa.
 - b) Hainbat emakume astronautaren gorabeherak NASAn.
 - c) Misio espazialean emakume batzuen lanaren garrantzia.
3. **Zergatik ziren egokiagoak emakumeak, ikertzailearen ustez?**
 - a) Ezaugarri fisikoei esker bidaiatzeko energia aurrezten zelako.
 - b) Egonaldia luzeetarako nortasun hobea izaten zutelako normalean.
 - c) Tamainari esker leku gutxiago behar zutelako kapsuletan.
4. **Zer izan zen *Mercury 13* programa?**
 - a) Emakumeak espaziora bidaltzeko programa ofiziala.
 - b) NASAko *Mercury* programaren parte bat.
 - c) Emakumeak astronauta izateko programa.
5. **Zer proba gainditu behar izan zuten hamairu emakumeek?**
 - a) *Mercury Seven* programako gizonak gainditu zituztenak.
 - b) Hegaldietan 1.000 orduko gorako pilotaje probak.
 - c) Hainbat proba berezi, emakumeak baitziren.
6. **Zergatik ez zituzten emakumeek derrigorrezko baldintzak betetzen?**
 - a) Hegaldi zibiletako esperientzia nahikoa ez zelako.
 - b) Armadako eskoletan emakume gutxi zegoelako.
 - c) Garai hartan debekatuta zeukatelako ingeniaritza ikastea.
7. **Zer zen espazioan emakumerik ez egotea, Glennen ustez?**
 - a) NASAREN antolakuntzaren ispilua.
 - b) Gizarte amerikarraren ispilua.
 - c) Emakumeek ingeniaritzan zuten lekuaren ispilua.
8. **Zer gertatu zen hurrengo urtean?**
 - a) Lehen emakume amerikarra joan zela espaziora.
 - b) Emakume bat bidali zutela espaziora.
 - c) Valentina Tereshkova onartu zutela *Mercury* programan.

2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A BERMEOKO GABONETAKO AZOKA

Bertoko Produktuen Gabonetako II. Azoka egingo da, 9:00etatik 15:00etara. 30 saltoki inguru egongo dira udal azoka honetan, bai merkatu barruan, bai kanpoan, eta saltoki horietan lehen mailako produktuak erosteko aukera izango dute bisitariak.

Gabonetako giroa eta usaina ere lortzeko, menuak dastatu ahal izango dira eta sukaldaritza erakustaldiak egingo dira. Horietan, errezeten eta truko ezberdin eta askoren berri emango da. Postre bereziak ere prestatuko dituzte.

Gabonetako argiek, apaingarriak eta musikak giroa dute azoka. Izan ere, musika eskolako taldeak, soka-taldeak eta herriko abesbatzak bere abestiek oso giro polita sortuko dute 11:00etatik 12:30era.

< www.bermeo.eus > Egokitua

B ORDIZIAKO GABONETAKO AZOKA

Abenduaren 28an Gabonetako aparteko azoka izango da Ordizian, urtean Udalak antolatzen duen azkena. Bertoko produktuak atsegin dituztenentzat, Ordizia osoa bihurtuko da azokaleku. Goizeko lehen ordutik aurrera, Beti Alai pilotalekuan kapoi, antzara eta indioilar erakusketa izango da. Plaza Nagusian asteroko azoka izango da. Garagartza Plazan, berriz, Euskal Herriko errege-sagar lehiaketa-erakusketa izango da, eta eskuz landutako produktuek beren lekua izango dute.

Ordiziako kaleetan *Txu-txu* tren turistikoa ibiliko da. Dударik gabe, txikientzat aukera erakargarria, baita heldu eta familia guztientzat ere. *Txu-txu* tren turistikoak 72 lagunentzako lekua du, eta Gabonetako azoka berezi honetarako auzo eta aparkaleku guneetatik joan-etorri zerbitzua emango du.

< www.ordiziakoazoka.com > Egokitua

C MUNGIAKO GABONETAKO AZOKA

Abenduaren 20tik 24ra bitartean, Mungia Gabonetako Azokaren hirugarren edizioa ospatuko da. Azoka, iaz ez bezala, *Euskal Pizkundearen* etorbidean egongo da. 19 postu apain eta dotore jarriko dituzte, honako produktuak eskainiz: eskuz egindako produktuak, bitxiak, osagarriak, jostailu berezi eta hezigarriak, liburuak eta gozokiak. Hori guztia kontuan hartuta, opariak erosteko eta Gabonetako jai-giroaz gozatzeko aukera ezin hobea izango dute, bai mungiarrek, bai kanpotik hurbiltzen direnek.

Gabonetako Azoka abenduaren 20an zabalduko da: arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Gainerako egunetan, 21ean eta 22an, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; 23an, goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 20:30era; eta, 24an, goizeko 11:00etatik 14:00etara.

< www.mungia.org > Egokitua

2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

| | |
|-----|--|
| 9. | Herri osoan, hainbat lekutan, egongo dira saltokiak. |
| 10. | Aurten azoka beste leku batean antolatuko dute. |
| 11. | Udal merkatuaren barruan eta kanpoan egongo dira postuak. |
| 12. | Gabonetako oparia erosteko aukera ederra izango dute bisitariak. |
| 13. | Azokaren ordutegia desberdina izango da egunaren arabera. |
| 14. | Gabonetako menua nola prestatu azalduko dute hainbat sukaldarik. |
| 15. | Herriko talde batzuek alaituko dute azoka beren kanteekin. |
| 16. | Animalien erakusketak izango du berezko tokia. |
| 17. | Aparkalekutik azokara hurbiltzeko erraztasuna emango dute. |

| | | |
|---|---|---|
| A | B | C |
| A | B | C |
| A | B | C |
| A | B | C |
| A | B | C |
| A | B | C |
| A | B | C |
| A | B | C |
| A | B | C |

3. ariketa

Elkarrizketa bat irakurriko duzu. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira. Hurrengo orrian dituzu galderak. **Lotu galderak eta erantzunak.**

Markatu testuko hutsuneak (18, 19, 20...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Galdera bat sobera dago.

IBONE SANCHEZ

Hiru kirol batean, horixe da triatloia: igeriketa, txirringularitza eta korrika lasterketa, hirurak lehiaketa berean. Fondo fisikoa, erresistentzia handia eta etengabe hobetzeko grina dutenentzako diziplina. Ibone Sanchez (Laudio, 1989) egungo Euskal Herriko triatloi txapelduna da.

18

Egia esan, triatloian berandu hasi nintzen, 20 urte nituela. Bost urterekin, igeriketan hasi nintzen jolas moduan eta utzi egin nuen, igerilekuan bakarrik egoteaz aspertuta nengoelako. Ondoren, nebarekin eskalada, bizikleta, mendia... Atletismoan ere ibili nintzen pare bat urtez, korrika egitea asko gustatzen zitzaidalako eta horrek aquatloia probatzera eraman ninduen (korrika + igeriketa). Azkenik, bizikleta probatzeko gomendatu zidan lagun batek.

19

Fisikoki orekatua izan behar da, pisuarekin obsesionatu gabe. Fin egon ahal zara, baina indarrrik gabe; beraz, erresistentzia, arintasuna eta indarraren arteko oreka da idealena. Psikologikoki, ordea, kirol guztietan bezala, burugogorra izan eta, nola ez, sufritzeko gaitasuna eduki behar da momentu txarrak gainditzeko. Lasterketa gehienetan hamargarren postuaren inguruan ibili naiz eta berdintsu ibiltzea da nire asmoa. Aurrekoetan hobeto ibili nintzen eta gehienbat lehenengoan gozatu nuen gehien.

20

Euskal Herriko zirkuitua irabaztea. Espainiako txapelketa autonomikoan laugarren geratu nintzen eta olinpiko batean, elite mailan, bederatzigarren. Bestalde, Madrilgo ekipoarekin Taldekako Duatloi Txapelketan txapeldun izan gara.

21

Badira eliteko euskal kirolariak Euskal Herrietik irten ez direnak. Hauetako batzuek Basque Team bezalako erakundeen babes ekonomikoa jasotzen dute, elite mailan aritzeak diru-inbertsio handia eskatzen duelako. Nire kasuan, berriz, denbora batez langabezian izan naiz eta horrek Madrilgo ekipoak egindako eskaintza onartzera eraman ninduen, besteak beste, gastu guztiak ordaintzen dizkidatelako.

22

Bi saio egiten ditut korrika, igeriketan eta bizikleta rodilloan (bizikleta modu estatikoan erabiltzeko aparatua). Guztira lau bat ordu egunero. Bizikleta irteera luzeak asteburuetarako uzten ditut.

23

laz Espainiako Triatloi Txapelketan bizikletaren katea atera zitzaidan eta denbora asko galdu nuenez, azken postuetan geratu nintzen.

24

Baliteke, baina hori osasuntsua dela iruditzen zait. Halere, kontrola eraman behar da, jendeak askotan erokeriak egiten ditu eta gorputza muturrera eramaten du.

25

Probatzeko eta entrenatzen hasteko. Ez dute inbertsio handirik egin behar, lasterketetan ibiltzen hasteko bizikleta norbaiti eskatu eta aurrera!

MAGUREGI, Z.

Gaztezulo. 2016ko maiatzaren 16a. Egokitua

3. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak

- A. Nolako entrenamenduak egiten dituzu sasoiaren egoteko?
- B. Zer esango zenieke triatloian parte hartzea pentsatzen ari direnei?
- C. Zeintzuk izan behar dira triatleta baten ezaugarriak?
- D. Euskal Herritik kanpo joatea beharrezkoa al da goi mailan aritzeko?
- E. Zerk laguntzen dizu lasterketan parte hartzen duzunean?
- F. Nolakoa izan da zure ibilbidea triatloian lehenengo postuetara iritsi arte?
- G. Zein izan da bizitza profesionalean izan duzun lorpenik handiena?
- H. Esango zenuke triatloia, runningarekin gertatu den bezala, moda bihurtzen ari dela?
- I. Zein izan da kirolean izandako momenturik gogorrena?

■ **Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:**

| | | | | | | | | |
|------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| Hutsuneak | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| Galderak | | | | | | | | |

| | |
|------------------|--|
| Soberakoa | |
|------------------|--|

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopiatu.**
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.
Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Gurpil-aulkia behar duzu eta askotan joaten zara kultura-etxera. Atzo arazo bat izan zenuen bertan.

Gaur kultura-etxeko sarreran erreklamazio-orria hartu duzu kexa ipintzeko. Azal ezazu gertatutakoa, horrek zer kalte sortu dizkizun eta proposatu zein izan daitekeen konponbidea.

2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.
Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Zurekin lan egin duen lagun baten mezua jaso duzu.

■ Hauxe da jaso duzun mezua:

The screenshot shows an email client interface. At the top, there are buttons for 'Bidali', 'Gorde', and 'Baztertu'. Below these, the 'Norentzat:' field contains 'Imanol'. There are links for 'Gehitu Cc' and 'Gehitu Bcc'. The 'Gaia:' field contains 'Aholku eske'. Below the subject, there is a link 'Erantsi fitxategia'. A rich text editor toolbar is visible with various icons for bold, italic, underline, font color, background color, link, list, indent, quote, link, unlink, and a 'Testu arrunta' button. The email body text is as follows:

Kaixo, Imanol:

Zer moduz? Datorren hilabetean Donostiako bulegoan sei hilabetez egingo dut lan eta ez dakit zer egin: egunero autobusez Donostiara joan eta Bilbora etorri edo Donostian denboraldi horretarako pisu bat alokatu.

Orain dela ez asko zeuri ere gauza bera gertatu zitzazunez, mezu hau idatzi dizut gomendio eske. Zuk zer egin zenuen? Zeintzuk dira bataren eta bestearen abantailak eta desabantailak? Diru aldetik, zer komeni zait? Azken batean, zer da onena? Edo zer gomendatzen didazu?

Zure erantzunaren zain,

Gorka

■ Erantzun iezaiozu lagunari.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «ESPAZIORIK EZ EMAKUMEENTZAT»

| | | | | | | | |
|----|---|----|---|----|---|----|---|
| 1. | B | 2. | C | 3. | A | 4. | C |
| 5. | A | 6. | A | 7. | B | 8. | B |

- **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.
- **Irakurgaia:** «GABONETAKO AZOKAK»

| | | | | | |
|-----|---|-----|---|-----|---|
| 9. | B | 10. | C | 11. | A |
| 12. | C | 13. | C | 14. | A |
| 15. | A | 16. | B | 17. | B |

- **3. ariketa:** lotu galderak eta erantzunak.
- **Irakurgaia:** «IBONE SANCHEZ»

| | | | | | | | | |
|-----------|----|----|----|----|----|----|----|----|
| Hutsuneak | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| Galderak | F | C | G | D | A | I | H | B |

| | |
|-----------|---|
| Soberakoa | E |
|-----------|---|